



## CONFÉRENCE-DÉBAT

# La Double-Besogne: Quelles mises en pratique?

Vendredi 22 mai, à partir de 18 heures

Bourse du Travail de Bayonne

Le capitalisme n'a sans doute jamais été autant contesté par une large partie du prolétariat et, plus largement, des classes populaires. À la précarisation et à l'appauvrissement se sont ajoutées d'autres menaces majeures : dépossession de notre travail, crise du logement, aggravation des conflits armés à travers le monde, désocialisation, fragilisation des espaces de vie collective, crise environnementale...

L'Iparralde demeure l'un des lieux où le mouvement ouvrier et les populations ont su préserver des espaces de contre-société vivants et dynamiques. Pourtant, aucune région du monde n'est épargnée par la crise globale que traverse l'humanité.

C'est pourquoi il est indispensable de renforcer les liens entre les organisations qui luttent pour la construction d'une société égalitaire. Cette dynamique doit s'inscrire dans une unité durable, mais aussi dans le débat, l'échange et la mutualisation de nos expériences.

Cette exigence est d'autant plus forte que le mouvement syndical, comme notre classe sociale dans son ensemble, traverse une crise stratégique profonde et durable. Nos perspectives de transformation sociale demeurent trop souvent floues, et les stratégies pour y parvenir restent marquées par des tâtonnements fragiles. Cette confusion fait le jeu de nos adversaires les plus dangereux : les forces fascistes et autoritaires, qui profitent de nos faiblesses politiques pour imposer leur hégémonie idéologique à un nombre croissant de travailleuses et de travailleurs.

## Conquêtes sociales immédiates et stratégie révolutionnaire

Notre tendance syndicale agit au sein des organisations syndicales pour y faire vivre le débat et la formation, et pour contribuer à la réappropriation du contenu stratégique de la Charte d'Amiens, en particulier de la double besogne et du fédéralisme prolétarien.

La double besogne consiste à mener, au quotidien, des luttes immédiates tout en construisant une perspective de rupture avec le capitalisme et sa culture bourgeoise. Elle vise à faire émerger une contre-société autogestionnaire, à la fois lieu d'organisation, d'accumulation de forces, de transmission d'expériences et d'acquisition des capacités collectives nécessaires à l'édification du communisme.

Un communisme vivant, concret, enraciné dans l'action, fondé sur le fédéralisme, donnant le pouvoir aux organisations de base et contestant les cadres étatiques et nationaux imposés par la bourgeoisie à notre classe sociale.

Nous vous proposons donc une conférence-débat à la Bourse du Travail de Bayonne, afin d'exposer et de remettre en discussion la stratégie historique de la CGT de France, celle du syndicalisme révolutionnaire, trop longtemps occultée par la dynamique d'institutionnalisation.

Mais il s'agit surtout de vous donner la parole : pour échanger ensemble, confronter nos expériences, renforcer nos liens et contribuer à reconstruire des repères stratégiques communs.

## Pour amorcer le débat

Bien des dérives affaiblissent aujourd'hui les organisations qui prétendent pourtant rompre avec l'ordre capitaliste : coupure d'avec la base, enfermement institutionnel, repli corporatif, entre-soi militant, radicalité de langage sans stratégie réelle, éloignement progressif des pratiques d'auto-organisation.

À bien des égards, la période que nous traversons rappelle celle où le mouvement ouvrier devait clarifier ses repères stratégiques face aux risques d'intégration, de dispersion et de perte de perspective. Si la notion de double besoin réapparaît aujourd'hui dans certains espaces syndicaux et militants, elle est souvent invoquée sans être réellement comprise ni mise en pratique. Trop souvent, les luttes demeurent fragmentées, sans débouché stratégique commun, tandis que l'horizon du dépassement du capitalisme s'efface.

La double besoin, au contraire, consiste à articuler les combats immédiats et la construction patiente d'une autre société. Elle invite à penser chaque lutte, chaque activité, chaque cadre d'organisation, non seulement comme un moyen de défense dans le présent, mais aussi comme un point d'appui pour faire grandir une force collective capable de rompre avec l'ordre existant. Elle engage ainsi une perspective de contre-société prolétarienne, solidaire, autogérée et égalitaire.

Cette perspective repose sur une mémoire militante, des pratiques, des outils et des expériences largement affaiblis par des décennies d'institutionnalisation et de perte d'autonomie stratégique. C'est à partir de ce constat que notre tendance syndicale entend contribuer à rouvrir la discussion, à transmettre des repères, à les questionner collectivement et à les remettre en mouvement.

C'est dans cet esprit que nous proposons cette soirée de discussion à toutes celles et tous ceux qui souhaitent échanger autour de la double besoin, renouer avec une réflexion stratégique de classe et contribuer à reconstruire des perspectives d'émancipation à partir de nos réalités concrètes.

Rejoins le savoir-faire

**MILITANT**

[www.syndicaliste.com](http://www.syndicaliste.com)





## HITZALDIA-EZTABAIDA

# Eginkizun bikoitza: Gure erreferentzia estrategikoak berreskuratuz

Maiatzaren 22an, 18:00 etatik aurrera, Baionako Lan Burtsa

Kapitalismoa ez da sekula hainbeste zalantzan jarria izan proletariotzaren zati handi baten eta, zabalago, herri-klaseen aldetik. Prekarizazioari eta pobretzeari beste mehatxu larri batzuk gehitu zaizkio: gure lanaren desjabetzea, etxebizitzaren krisia, mundu osoan gatazka armatuen larritzea, desozializazioa, bizitza kolektiborako espazioen ahultzea, ingurumen-krisia...

Iparraldea oraindik ere langile mugimenduak eta herritarrek kontra-gizarte bizien eta dinamikoen espazioak bizirik atxikitzen jakin duten lurraldeetako bat da. Hala ere, munduko eskualde bakar bat ere ez dago gizateriaren gain erortzen ari den krisi globaletik salbu.

Horregatik, ezinbestekoa da gizarte berdinazale baten eraikuntzaren alde borrokatzen diren erakundeen arteko loturak indartzea. Dinamika horrek batasun iraunkorrean oinarritu behar du, baina baita eztabaidan, trukean eta gure esperientzien elkarbanatzean ere.

Premia hori are handiagoa da mugimendu sindikala, eta gure klase soziala bera ere, krisi estrategiko sakon eta iraunkor batean murgilduta daudelako. Gizartea eraldatzeko gure perspektibak sarriegi lausoak dira, eta horretarako estrategiak ahulez eta zalantzez beterik ageri dira. Nahasmendu horrek gure etsairik arriskutsuenen mesedetan jokatzeko du: indar faxista eta autoritarioen mesedetan, zeinek gure ahulezia politikoez baliatzen baitira beren hegemonia ideologikoa gero eta langile gehiagoren artean ezartzeko.

## Berehalako konkista sozialak eta estrategia iraultzailea

Gure joera sindikalak sindikatuen baitan jarduten du eztabaida eta formakuntza biziartzeko, eta Amiensko Gutunaren eduki estrategikoa berriz geureganatzen laguntzeko, bereziki eginkizun bikoitza eta federalismo proletarioa.

Eginkizun bikoitzak esan nahi du eguneroko borroka berehalakoak eramatea, aldi berean kapitalismoarekiko eta haren kultura burgesarekiko haustura perspektiba eraikiz. Helburua da kontra-gizarte autogestionario bat sortzea, aldi berean antolakuntza-leku, indarren metaketa-gune, esperientzien transmisiorako tresna eta komunismoa eraikitze beharrezkoak diren gaitasun kolektiboen garapen-eremu izango dena.

Komunismo bizi bat, zehatza, ekintzan sustraitua, federalismoan oinarritua, oinarriko erakundeei boterea ematen diena eta burgesiak gure klase sozialari ezarri dizkion estatu- eta nazio-markoak zalantzan jartzen dituena.

Beraz, Baionako Lan Burtsan hitzaldi-eztabaida bat proposatzen dizuegu, Frantziako CGTren estrategia historikoa, hau da sindikalismo iraultzailea, azaltzeko eta berriz eztabaidagai jartzeko; instituzionalizazioaren dinamikak luzeegi estali duen estrategia, alegia.

Baina batez ere, hitza zuei ematea da helburua: elkarrekin trukatzeko, gure esperientziak elkarren aurrean jartzeko, gure arteko loturak indartzeko eta erreferentzia estrategiko komunak berreraikitzen laguntzeko.

## eztabaida abiatzeko

Gaur egun, desbideratze askok ahultzen dituzte ordena kapitalistarekin hautsi nahi dutela dioten erakundeak berak ere: oinarriarekiko haustura, instituzioetan giltzapetzea, erreflexu korporatiboa, militanteen arteko itxitasuna, benetako estrategiarik gabeko erradikaltasun diskurtsiboa, eta auto-antolakuntzako praktiketarik urruntze progresiboa.

Zentzu askotan, bizi dugun garaia langile mugimenduak integrazioaren, sakabanaketaren eta perspektiba galeraren arriskuen aitzinean bere erreferentzia estrategikoak argitu behar izan zituen garaia gogorarazten du. Gaur egun eginkizun bikoitzaren ideia berriz agertzen bada ere zenbait espazio sindikal eta militantetan, askotan benetan ulertu edo praktikan ezarri gabe aipatzen da.

Gehiegitan, borrokak zatiturik gelditzen dira, estrategia komun baterako biderik gabe, eta kapitalismoa gainditzeko perspektiba lausotuz doa.

Eginkizun bikoitzak, aldiz, berehalako borroken eta beste gizarte baten eraikuntza pazientearen arteko lotura egitea du xede. Borroka bakoitza, jarduera bakoitza, antolakuntza-esparru bakoitza, ez soilik gaur egungo defentsarako tresna gisa pentsatzera deitzen gaitu, baizik eta dagoen ordenarekin hausteko gai izango den indar kolektibo bat handitzeko euskarri gisa ere. Horrela, kontra-gizarte proletario, solidario, autogestionatu eta berdinzale baten perspektiba zabaltzen du.

Perspektiba hori militantziaren memoria batean, praktketan, tresnetan eta esperientzietan oinarritzen da; baina horiek guziak neurri handi batean ahulduak izan dira instituzionalizazio hamarkadengatik eta autonomia estrategikoaren galeragatik. Diagnostiko horretatik abiatuz, gure joera sindikalak eztabaida berriz irekitzen lagundu nahi du, erreferentziak transmititu, kolektiboki zalantzan ezarri eta berriz mugimenduan sartu.

Horregatik proposatzen dugu eztabaida-gaualdi hau, eginkizun bikoitzaren inguruan trukatzeko, klase ikuspegi estrategiko bati berriz lotzeko eta gure errealitate konkretuetatik abiatuta emantzipazio perspektibak berreraikitzen laguntzeko gogoia duten guziei.

Bildu zaitetz

**MILITANTZIA**

egitera.

[www.syndicaliste.com](http://www.syndicaliste.com)

